

Euskadiko
Fisioterapeuten
Elkargo Ofiziala



Colegio Oficial
de Fisioterapeutas
del País Vasco

2025eko Deialdia

Ikerketarako
Laguntzen
Oinarriak



IKERKETARAKO LAGUNTZEN LAU MODALITATEEN OINARRIAK

2025eko deialdia

1001/2002 Errege Dekretuaren 2. artikulua (Fisioterapeutenak) eta 12/03/12 Aginduaren 10.1.f artikulua (EFEOko Estatutuak onartzen dituena) testuinguruan, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren (EFEO) ikerketarako laguntza lehiakor hauen helburua da ikerketa-jarduera sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko fisioterapeuta elkargokideen artean, ikerketa-proiektuak gauzatzea eta ikerketarekin lotutako beste jarduerak batzuk bultzatzea.

Jarraian, Ikerketarako Laguntzen lau modalitateen deialdiaren oinarriak deskribatzen dira. Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeak sortu dituzten laguntza lehiakor horiek, eta Gobernu Batzarrek 2024ko abenduaren 14ko batzarrean onetsi zituen.

- Ikerketa Proiektuetarako Laguntzak
- Berrikuntzarako Laguntzak
- Egonaldietarako Laguntzak
- Batzarretarako Laguntzak

INFORMAZIOA ETA BALDINTZA OROKORRAK

Dokumentu honen helburua da EFEOren ikerketarako laguntzen lau modalitateak emateko, justifikatzeko eta haien jarraipena egiteko oinarri arautzaileak ezartzea.

Pertsona eta erakunde onuradunak

Laguntza hauek EFEOren elkargokide diren fisioterapeuta profesionalen kolektibo osoari zuzenduta daude, nagusiki, eta ezinbesteko baldintza da ikertzaile nagusiaren figura (aurrerantzean IN) EFEOko fisioterapeuta elkargokide bat izatea. Nolanahi ere, ikerketa-taldeko laguntzaile gisa aurkez daitezke Estatuko beste fisioterapeuten elkargo ofizial/profesional batzuetako profesionalak edo osasunaren ingurunearekin lotutako beste lanbide batzuetako profesionalak. Hala ere, beharrezkoa da ikerketa-taldeko kideen % 70 EFEOkoak izatea.

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte fundazio, ikerketa-institutu, unibertsitate edo osasun-zentro bati lotutako ikerketa-taldeekin ofizialki lan egiten duten edo lankidetzan ari diren fisioterapeutek. Fundazio, institutu eta zentro horiek guztiek organo kudeatzaile gisa jardungo dute.

Era berean, laguntzak eskatu ahalko dituzte fisioterapeuta bat aurkeztutako proiektuaren arduradun (ikertzaile nagusia) izendatzen duten erakunde eta/edo enpresek. Kasu horretan, aintzat hartu beharko dira laguntzen kudeaketari buruzko gogoeta berezi batzuk, zeinak azalpen-eranskinean jasota dauden.

Ikerketarako laguntzak emateko prozesua eta irizpide objektiboak

Ikerketa-proiektuetarako eta berrikuntzarako laguntzen modalitateen konkurrentzia lehiakorra da, eta ebaluazio-irizpide publiko batzuk aplikatuko dituzten kanpoko eragileek hartuko dute parte.

EFEOko Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeak (PIIB) kudeatuko du laguntzak jaso, ebaluatu eta esleitzeko prozesua. Horretarako, Ebaluaziorako Batzorde Zientifiko bat eratuko da. Batzordea EFEOko PIIBko arduradun batek eta Fisioterapiaren arloko ikerketan adituak diren kanpoko zenbait eragilek osatuko



IKERKETARAKO LAGUNTZEN LAU MODALITATEEN OINARRIAK

2025eko deialdia

dute. Eragile horiek ez dira EFEOkoak izango, independenteak baizik, eta autonomia-, nazio- eta nazioarte-mailako erakundeetan ikerketan eta posizio akademikoan egindako ibilbideagatik nabarmenduko dira. Kanpoko ikuskatzaile guztiak anonimoak izango dira EFEOko Gobernu Batzarreko gainerako kideentzat eta elkargokideentzat.

Printzipio orokor gisa, aurkezten diren ikerketa-proposamenak ebaluatzeko orduan, honako hauek hartuko dira kontuan: proiektuaren garrantziaren eta justifikazioaren azterketa sakona, diseinua eta metodologia, bidegarritasuna eta proiektatutako baliabideak, proiektuaren emaitzek zientzian eta gizartean izan dezaketen eragina, eta ikerketa eremuarekin lotu daitezkeen printzipio etikoekiko errespetua (konfidentzialtasuna, baimen informatua, parte-hartzaileen segurtasuna...). Halaber, beste alderdi batzuk ere hartuko dira kontuan, hala nola ideiaaren originaltasuna, helburuaren argitasuna, genero-ikuspegia, arazoaren justifikazio egokia edo ikerketa-galderaren eta proposatutako metodologiaren arteko koherentzia.

Eskaeraren izapidea

Laguntzen modalitate bakoitzak bere izapidetze-prozesua du, eta dagozkion baldintzak eta epeak behar bezala bete beharko dira.

Eskaerak euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez aurkeztu ahalko dira.

Eskaera EFEOren webguneko inprimaki espezifiko baten bidez bidaliko da, eta modalitate bakoitzerako adierazitako arauak errespetatu beharko dira.

Honako hauek baztertu egingo dira: behar bezala beteta ez dauden eskabideak, eskatutako informazio guztia ematen ez dutenak, deialdi honen oinarriekin eta aurkezteko formatuarekin bat ez datozenak, eta/edo adierazitako epean aurkezten ez direnak. Eskabidean eta memoria ekonomikoan emandako informazioa egiazkoa ez bada, zehapen bat ezarriko da, hain zuzen ere, dokumentu honen amaieran adierazten dena.

Bateraezintasun-araubidea

Ikerketarako Laguntzaren edozein modalitatetan parte hartzen duten fisioterapeuta elkargokide guztiek egunean izan beharko dituzte elkargoko betebeharrak, eta ez dute izango dagoen elkargo ofizialak ezarritako zehapenik. Baztertu egingo dira deskribatutako egoeretakoren batean dagoen kideren bat aurkezten duten hautagaitza guztiak. Proiektu hautagaia enpresa edo erakunde batek aurkezten badu, bateraezintasun-araubidea aplikatuko zaie INari eta parte hartzen duten gainerako fisioterapeutei.

Fisioterapeuta elkargokide bakoitza modu independentean aurkeztu ahal izango da ikerketarako laguntzen modalitate guztietara, aintzat hartuta modalitate bakoitzaren berezko bateraezintasun-inguruabarrak. Modalitate batean baino gehiagotan gehieneko puntuazioa lortuz gero, gehienez ere ikerketarako bi laguntza-mota emango zaizkio; horretarako, aintzat hartuta dira, batetik, aurkeztu diren modalitate guztien artean lortutako puntuazio altuena eta, bestetik, eskaeren ezaugarriak.

Ekitatea gailendu dadin, proposatutako laguntzen eta jasotako eskaeren kopuruaren arabera, mugatu egingo da erakunde bakoitzeko laguntzen banaketa. Laguntza modalitateetako batean baino gehiagotan eskatu duten erakundeetako edo ikerketa-taldeetako elkargokideek ezin izango dute jaso ikerketarako laguntza



IKERKETARAKO LAGUNTZEN LAU MODALITATEEN OINARRIAK

2025eko deialdia

guztien % 50 baino gehiago, baldin eta modalitate bakoitzean beste erakunde bat badago ordezkatuta eta ebaluazio-fasean gutxieneko puntuazio-muga gainditzen badu. Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzarreko kideek ezingo dute jaso ikerketarako laguntzarik, modalitate bakar batean ere.

Ebazpena eta jakinarazpena

Kanpo-eragileak binaka ebaluatu ondoren, ikerketarako laguntzak esleitzeko azken erabakia behar bezala justifikatu eta Gobernu Batzarrera bidaliko du PIIBeko arduradunak, ebaluazio-prozesuaren gardentasunaren eta objektibotasunaren berme gisa.

Justifikazioa

Fisioterapeutek edo erakunde onuradunek justifikatu beharko dute ezarritako baldintzak betetzen dituztela, bai eta laguntza ematea eragin zuen jarduera egin izana ere, memoria baten bidez. Ikerketarako Laguntzen modalitate bakoitzak bere justifikazio-epea du, eta saritutako pertsonen eta/edo erakundeen behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaie.

Finantza-kudeaketa eta laguntzak ordaintzea

Ikerketarako Laguntzen modalitate guztien finantza-kudeaketarekin eta ordaintzarekin lotutako gogoetak **“1. eranskina. Finantza-kudeaketa eta laguntzak ordaintzea”**.

Saritutako erakundearen kudeaketa-organoa arduratuko da laguntzaren kudeaketa ekonomikoaz, honako hauen arteko komunikazio zuzenaren bidez: INa, Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeko arduraduna, EFEOko administrazioa eta diruzaintzako langileak, edo, halakorik ezean, saritutako pertsona edo enpresa/erakundea.

Betebeharrak ez betetzearen ondoriozko zehapenak

Ale batera utzi gabe dagozkion ondorio deontologikoak eta Elkargoari eragin zaizkion mota guztietako kalte-galeren ordain osoa, ikerketa-taldeko kide guztiei EFEOren laguntza berrien deialdian 5 urtez ezin parte hartzeko zehapena ezarriko zaie, arrazoi hauengatik:

- Edozein laguntza-modalitatetako eskaeretan eta entregatu beharreko memorietan emandako informazioa egiazkoa ez izatea.
- EFEOren babesaren ez adieraztea finantzatzutako proiektu edo egonaldien argitalpen eta aurkezpen zientifikoetan.

Memoria teknikoak ez bada jasotzen eskatutako ikerketa-proiektua edo egonaldian amaitzen den egunean, Batzorde Zientifikoak gutun bat bidaliko dio INari edo egonaldiako laguntzaren onuradunari, memoria eskatzeko. Memoria teknikoak ez bada astebetean jasotzen, INak edo onuradunak itzuli egin beharko du emandako laguntzaren zenbateko osoa. Bidalitako memoria teknikoak ez badator bat proiektuaren eskaeran edo finantzatzutako egonaldian adierazitakoarekin, beka osoa itzultzeko zehapena ere ezarriko da. Emandako funtsak itzultzen ez badira, betiko izango da laguntzetara aurkezteko desgaitasuna.



IKERKETARAKO LAGUNTZEN LAU MODALITATEEN OINARRIAK

2025eko deialdia

Datuen babesa

Jasotako datu pertsonal guztiak laguntzetan parte hartzeko bilduko dira, eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (DBLO) eta hura garatzen duten gainerako arauetan xedatutakoaren arabera tratatuko dira. Ikerketarako laguntza honen deialdirako eskaera izapidetzeko zure baimena da tratamenduaren oinarri juridikoa. EFEOk du datu horiek tratatzeko ardura. Datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko, tratamenduaren aurka egiteko edo mugatzeko eskubideak baliatzeko, eskera bat igorri beharko duzu posta elektronikoz helbide honetara: cofpv@cofpv.org helbidera edo idatziz egoitza honetara: Ibarrekolanda kalea 15, behea, Bilbo 48014 (Bizkaia).

f) Etengabeko prestakuntzarako jarduerak antolatzea, hitzaldi, batzar eta jardunaldien bidez; aldizkariak, liburuxkak eta zirkularrak argitaratzea; eta, oro har, lanbidearen hobekuntza teknikoa, zientifikoa eta humanistikoa sustatzeko beharrezkoak diren bitartekoak praktikan jartzea.



IKERKETARAKO LAGUNTZEN LAU MODALITATEEN OINARRIAK

2025eko deialdia

Jarraian, EFEOren Ikerketarako Laguntzen lau modalitateak definitzen dira:

1. IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK

Deialdi lehiakor honen helburua da Fisioterapiako ikerketa-proiektuak garatzea. Laguntza-modalitate horretara 24.000 € bideratuko dira, zenbait proiekturen artean banatzeko. Zuzkidura hori aldatu ahal izango litzateke aurkeztutako eskaera-kopuruaren, kalitate zientifikoaren eta aurrekontu-ezaugarrien arabera. Proiektu batek gehienez ere 8.000 € jaso ahal izango lituzke.

Oinarriak eta eskakizunak

- Proiektuak diseinatuta egon behar du 12 eta 36 hilabete arteko epean gauzatzeko, eta kronograman jaso beharko da. Proposatutako proiektua iraupen luzeagoko proiektu baten zati bada, zehaztu egin beharko da proiektu horren zein alditarako, premiatarako edo zereginetarako eskatzen den laguntza.
- Ezinbestekoa izango da ikerketa egingo den zentroko Ikerkuntza Klinikoko Batzorde Etikoaren (IKBE) baimena aurkeztea, edo, araudiaren eskakizunak aintzat hartuta, Euskadiko Medikamentuen gaineko Ikerkuntza Batzorde Etikoaren baimena. Halakorik ezean, dokumentu bat aurkeztu ahal izango da proiektua laguntza eskatzeko epea itxi aurretik aurkeztu dela ziurtatzeko, eta konpromisoa hartuko da baimena behin betiko onespeneraren ziurtagiria lortu ondoren bidaltzeko. Zentro anitzeko proiektuetan (bi zentrok edo gehiagok parte hartzen duten proiektuetan), parte hartzen duten zentro guztien baimena edo horietan guztietan ikerketa bermatzen duen autonomiako edo estatuko IKBEarena erantsi beharko da.
- Ez da intereseko gairik ezarriko.

Bateraezintasun-araubidea, jarraipena eta justifikazioa

- Elkargokide bakoitzak gehienez ere bi eskaera aurkeztu ahal izango ditu Ikerketa Proiektuetarako Laguntzen modalitatean. Nolanahi ere, IN gisa horietako batean bakarrik agertu ahal izango da, eta laguntzaile gisa beste eskaera batean. Era berean, elkargokide bakoitza gehienez ere bi ikerketa-proiektuetarako laguntzetan aurkeztu ahal izango da kolaboratzaile gisa.
- Laguntza eman eta urtebete ondoren, INak proiektuan lortutako emaitzei eta sortutako gastuei buruzko azken Memoria Teknikoa aurkeztu beharko du.
- INak bere burua berriz edozein laguntza-modalitatetan aurkeztu ahal izateko, EFEOko batzarrak derrigorrez azken Memoria Teknikoa jaso, aztertu eta itxi beharko du. Hortaz, INak ezingo du bere burua urtero aurkeztu Berrikuntzarako Laguntzen modalitatean. Hala ere, eskakizun horrek ez du eragotziko Laguntzen beste hiru modalitateetan bere burua aurkeztea.

Diruz lagun daitezkeen gastuak

✓ Eskatutako zenbatekoa honako hauek ordaintzeko erabili ahal izango da:

- Zerbitzuak kontratatzeak eragindako gastuak. Proiektuan behar bezala justifikatuta eta integratuta dauden kanpo-zerbitzuak (adibidez, garapen teknologikoa, pazienteen ebaluazioa, etab.) ordaindu ahalko dira.
- Ikerketa egiteko material inbentariagarria eta/edo suntsikorra. Material inbentariagarriaren kasuan



IKERKETARAKO LAGUNTZEN LAU MODALITATEEN OINARRIAK

2025eko deialdia

(proiektuaren garapenetik haratago irauten dutenak), EFEOren eta erakundearen arteko hitzarmen bat diseinatzeko eta sinatzeko aukera onartuko da. horiek zaintzeko, biltegitratzeko eta etorkizunean ustiatzeko baldintzak ezartzeko.

- Ekipoak erabili eta mantentzearekin lotutako gastuak.
- Egin beharreko ikerketarekin lotutako bidaiei eta egonaldiaren gastuak.
- Aurreikusitako gastu guztiek behar bezala justifikatuta egon beharko dute eskaeraren memoria ekonomikoaren atalean.

Finantzatu daitezkeen kostuak 2026ko abenduaren 31 baino lehen ordainduko dira.

✗ Eskatutako zenbatekoa ezingo da honetarako erabili

- Proiektua egiten den erakundearekin kontratu-harremana (funtzionarioa, estatutukoa edo lanekoa) duten pertsonak zuzenean kontratatzea.
- Argitalpen zientifikoak ordaintzeko laguntzak.
- Batzarretan edo antzeko prestakuntza-jardunaldietan izena emateagatik eta bertaratzeagatik gastuak eta dietak.

Ebaluazioa

Ebaluazio-sistema honako kalitate-irizpide eta prozesu hauen arabera izango da:

- Ebaluazio-irizpideak proiektuaren diseinu metodologiko motaren arabera ezarriko dira. Ikerlan-mota bakoitzaren baremoak publikoak dira, eta webgunean eskura daitezke.
- Eskaera bakoitzak 100 puntutik 65 puntu lortu beharko ditu gutxienez, deliberazio-prozesuan jarraitu ahal izateko.
- Kanpo-ikuskatzaileen taldetik bik berrikusiko dute eskaera bakoitza, eta lana modu independentean ebaluatuko dute, ezarritako baremoaren arabera. Ikuskatzaileen puntuazioan % 10 baino gutxiagoko aldea badago, eskaera hurrengo fasera igaroko da. Aldea % 10 baino gehiagokoa bada, EFEOko arduradunak aldea ebatziko du.
- EFEOko arduradunak eskaera guztiak berrikusi eta puntuatuko ditu. Hala ere, puntuazio horrek ez du eraginik izango, ikuskatzaileak bat ez datozenean salbu.
- Berdinketa badago, EFEOko arduradunak hartuko du azken erabakia, eta erabaki hori EFEOko Batzarrearekin partekatuko da.
- Modu positiboan baloratuko dira diziplina anitzeko taldeak (baldin eta taldekideen % 70 fisioterapeutak badira) eta zentro edo erakunde desberdinetako ikertzaileen parte-hartzea eta baterako lana eskatzen duten zentro anitzeko proiektuak. Era berean, positiboki baloratuko da ikerketa-taldeko kideen artean genero-ikuspegia eta berdintasuna aintzat hartzea, bai eta aurretik bekarik jaso ez duten talde eta/edo proiektuak ere.
- Ikertzaileen kopuruak eta haien arduraldiak nahikoa izan beharko du proiektuaren bideragarritasun osoa bermatzeko, neurritz gainera izan gabe.

Eskaera eta dokumentazioa bidaltzea

Ikerketa-proiektuetarako laguntzetarako esakera-agiri espezifikoaren txantiloia webgunean egongo da



IKERKETARAKO LAGUNTZEN LAU MODALITATEEN OINARRIAK

2025eko deialdia

eskuragarri. Eskaerak EFEOren webgunearen bidez bakarrik izapidetuko dira. Webgunean Google Forms inprimakia jarriko da eskuragarri; hortaz, beharrezkoa izango da Gmailera lotutako helbide elektroniko bat erabiltzea. Inprimakiak INaren identifikazio-datuak bilduko ditu, eta honako bi fitxategi hauek eranstea ahalbidetuko du (artxiboak PDF formatuan soilik erantsi ahaliko dira, adierazitako formatu-arauak betez):

1. Eskaera-agiria

Erantsitako PDF artxiboak honako izen hau izan beharko du:

AYUPROINV_DOCSOLI_IN-AREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.

(Adibidez, ikertzaile nagusiak Alaitz Ibarluzea Torres badu izena, fitxategiak honako izen hau izango du: **AYUPROINV_DOCSOLI_AIT_2025**)

2. CV guztiak dituen dokumentua

CVe Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioaren (FECYT) CV laburtuaren (CVL, gaztelaniaz CVA) formatua bete beharko dute. Ikertzaile guztien CVLak dituen artxibo bakarra aurkeztu beharko da, eta INaren CVLa agertuko da lehenik.

Erantsitako PDF artxiboak honako izen hau izan beharko du:

AYUPROINV_CVA_IN-AREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.

(Adibidez, ikertzaile nagusiak Alaitz Ibarluzea Torres badu izena, fitxategiak honako izen hau izango du: **AYUPROINV_CVA_AIT_2025**)

Epeak, ebazpena eta jakinarazpena

Ikerketarako Laguntzen eskaerak aurkezteko epea 2025eko maiatzaren 19an hasiko da, eta uztailaren 4an amaituko da, 15:00etan (penintsulako ordua).

Emakidaren aldi baterako ebazpena 2025eko urrian argitaratuko da. Erreklamazioak egiteko aldia 5 egun baliodunekoa izango da, aldi baterako ebazpena argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Ikerketa Proiektuetarako Laguntzen esleipena EFEOren 2025eko Urteko Ospakizunean jakinaraziko da, eta saria jaso ahal izateko derrigorrezkoa izango da ekitaldi horretara joatea.

2. BERRIKUNTZARAKO LAGUNTZAK

Laguntza-modalitate horren xedea da Fisioterapiaren arloan berrikuntza eta garapen teknologikoa sustatzea, jardunbide klinikoari edo irakaskuntzari aplikatutako teknika, metodologia, gailu edo tresnetan aurrerapen nabarmenak ekarriko dituzten proiektuak bultzatuz. Gehieneko finantzaketa 3.000 eurokoa izango da, eta banaketa eskaera-kopuruaren eta eskaeren ezaugarrien arabera egingo da. Fisioterapiako jardunbide klinikoan edo irakaspenean aplikatutako garapen-eremu eta/edo teknologia berrietarako proiektuak finantzatuko dira.

Oinarriak eta eskakizunak

- Proiektuak gehienez 12 hilabete iraungo du, eta behar bezala justifikatutako kasuetan, iraupena luzatu ahaliko da.
- Ez da intereseko gairik ezarriko.



IKERKETARAKO LAGUNTZEN LAU MODALITATEEN OINARRIAK

2025eko deialdia

Bateraezintasun-araubidea, jarraipena eta justifikazioa

- Elkargokide bakoitzak gehienez Berrikuntzarako Laguntzako modalitate bakarrean egin ahalko du eskaera IN gisa.
- Laguntza eman eta urtebete ondoren, INak proiektuan lortutako emaitzei eta sortutako gastuei buruzko azken Memoria Teknikoa aurkeztu beharko du.
- INak bere burua berriz edozein laguntza-modalitatetan aurkeztu ahal izateko, EFEOko batzarrak derrigorrez azken Memoria Teknikoa jaso, aztertu eta itxi beharko du. Hortaz, INak ezingo du bere burua urtero aurkeztu Berrikuntzarako Laguntzen modalitatean. Hala ere, eskakizun horrek ez du eragotziko Laguntzen beste hiru modalitateetan bere burua aurkeztea.
- Behin Berrikuntzarako Laguntza emanda, derrigorrez EFEO aipatu beharko da laguntzen modalitateetako proiektu onuradunetan sortutako jakinarazpen eta zientzia-argitalpen guztietan.
- Laguntza jasotzeak Elkarberrin argitaratzeko aipamen laburra bidali behar izatea ekar dezake (finantzatutako proiektu, egonaldi edo zientzia-argitalpenari buruz).

Gastos subvencionables

✓ Eskatutako laguntza honako hauetarako erabili ahalko da:

- Zerbitzuak kontratatzeak eragindako gastuak. Proiektuan behar bezala justifikatuta eta integratuta dauden kanpo-zerbitzuak (adibidez, garapen teknologikoa, pazienteen ebaluazioa, etab.) ordaindu ahalko dira.
- Ikerketa egiteko material inbentariagarria eta/edo suntsikorra. Material inbentariagarriaren kasuan (proiektuaren garapenetik haratago irauten dutenak), EFEOren eta erakundearen arteko hitzarmen bat diseinatzeko eta sinatzeko aukera onartuko da, horiek zaintzeko, biltegiratzeko eta etorkizunean ustiatzeko baldintzak ezartzeko.
- Ekipoak erabili eta mantentzearekin lotutako gastuak.
- Egin beharreko ikerketarekin lotutako bidaiei eta egonaldien gastuak.
- Aurreikusitako gastu guztiek behar bezala justifikatuta egon beharko dute eskaeraren memoria ekonomikoko atalean.

Finantzatu daitezkeen kostuen ordainketa 2026ko abenduaren 31 baino lehen egingo da.

✗ Eskatutako zenbatekoa ezingo da honetarako erabil:

- Proiektua egiten den erakundearekin kontratu-harremana (funtzionarioa, estatutukoa edo lanekoa) duten pertsonak zuzenean kontratatzea.

Ebaluazioa

Ebaluazio-sistema honako kalitate-irizpide eta prozesu hauen arabera egingo da:

- Ebaluazio-irizpideak publikoak dira, eta web-orriaren bidez eskura daitezke.
- Honako irizpide hauek aplikatuko dira:
 - Garapen teknologikoan esperientzia duten zentro, enpresa edo erakundeekin lan egitea.
 - Proiektuaren berrikuntza-maila eta originaltasuna.



IKERKETARAKO LAGUNTZEN LAU MODALITATEEN OINARRIAK

2025eko deialdia

- Fisioterapia-jardunbidea edo irakaskuntza hobetzeko izan lezakeen inpaktua.
- Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa.
- Talde eskatzailearen esperientzia eta gaitasuna.
- Epe luzerako iraunkortasuna eta aplikagarritasuna.
- Diziiplina anitzak eta genero-ikuspegia aplikatzea.
- Eskaera bakoitzak 100 puntutik 65 puntu lortu beharko ditu gutxienez, deliberazio-prozesuan jarraitu ahal izateko.
- Kanpo-ikuskatzaileen taldeak eskaerak berrikusiko dituzte, eta lana modu independentean ebaluatuko dute, ezarritako baremoari jarraikiz. Ikuskatzaileen puntuazioan % 10 baino gutxiagoko aldea badago, eskaera hurrengo fasera igaroko da. Aldea % 10 baino gehiagokoa bada, EFEOko arduradunak aldea ebatziko du.
- EFEOko arduradunak eskaera guztiak berrikusi eta puntuatuko ditu. Hala ere, puntuazio horrek ez du eraginik izango, ikuskatzaileak bat ez datozenean salbu.
- Berdinketa badago, EFEOko arduradunak hartuko du azken erabakia, eta erabaki hori EFEOko Batzarrarekin partekatuko da.
- Modu positiboan baloratuko dira diziiplina anitzeko taldeak, baldin eta taldekideen % 70 fisioterapeutak badira, eta ikerketa-taldeko kideen artean genero-ikuspegia eta berdintasuna aintzat hartzen badira.

Eskaera eta dokumentazioa bidaltzea

Berrikuntzarako Laguntzetarako eskaera-agiri espezifikoaren txantiloia webgunean egongo da eskuragarri. Eskaerak EFEOren webgunearen bidez bakarrik izapidetuko dira. Webgunean Google Forms inprimakia jarriko da eskuragarri; hortaz, beharrezkoa izango da Gmailera lotutako helbide elektroniko bat erabiltzea. Inprimakia INaren identifikazio-datuak bilduko ditu, eta honako bi fitxategi hauek eranstea ahalbidetuko du (artxiboak PDF formatuan soilik erantsi ahalko dira, adierazitako formatu-arauak betez):

1. Eskaera-agiria

Erantsitako PDF artxiboak honako izen hau izan beharko du:

AYUINNOV_DOCSOLI_IN-AREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.

(Adibidez, ikertzaile nagusiak Alaitz Ibarluzea Torres badu izena, fitxategiak honako izen hau izango du: **AYUINNOV_DOCSOLI_AIT_2025**)

2. CV guztiak dituen dokumentua

CVek Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioaren (FECYT) CV Laburtuaren (CVL, gaztelaniaz CVA) formatua bete beharko dute. Ikertzaile guztien CVLak dituen artxibo bakarra aurkeztu beharko da, eta INaren CVLa agertuko da lehenik.

Erantsitako PDF artxiboak honako izen hau izan beharko du:

AYUINNOV_CVA_IN-AREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.

(Adibidez, ikertzaile nagusiak Alaitz Ibarluzea Torres badu izena, fitxategiak honako izen hau izango du: **AYUINNOV_CVA_AIT_2025**)

Epeak, ebazpena eta jakinarazpena

Berrikuntzarako Laguntzetarako eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 19an hasiko da, eta 2025eko uztailaren 4an amaituko da, 15:00etan (penintsulako ordua).



IKERKETARAKO LAGUNTZEN LAU MODALITATEEN OINARRIAK

2025eko deialdia

Emakidaren aldi baterako ebazpena 2025eko urrian argitaratuko da. Erreklamazioak egiteko aldia 5 egun baliodunekoa izango da, aldi baterako ebazpena argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Berrikuntzarako Laguntzen esleipena EFEOn 2025eko Urteko Ospakizunean jakinaraziko da, eta saria jaso ahal izateko derrigorrezkoa izango da ekitaldi horretara joatea.

3. AYUDAS PARA ESTANCIAS

Gehienez 1.000 € emango dira, bi laguntzetan banatu ahal izango direnak, elkargokideak nazioarteko edo estatuko ikerketa-zentro edo -taldeetara egindako bidaiaren eta/edo egonaldiaren gastuak ordaintzeko.

Oinarriak eta eskakizunak

- Egonaldiak gutxienez 15 egun iraun beharko du, eta egun horiek ez dute zertan jarraiak izan behar; egonaldia 2025erako Ikerketarako Laguntzen argitalpen-dataren eta 2026ko maiatzaren 1aren artean egin beharko da. Ikerketa-zentro, -zerbitzu edo -talde hartzaileak onarpen-gutuna aurkeztu beharko du derrigorrez, eta INak egonaldiaren xede den gaiaren inguruan duen esperientziari buruzko informazioa aurkeztu beharko da.
- Deialdian eskaera bakarra baldin badago, zenbateko osoa eskaera bakar horri emateko aukera aztertuko da, baldin eta egonaldia justifikatzen duten ezaugarriak edo egoerak betetzen badira.

Bateraezintasun-araubidea, jarraipena eta justifikazioa

- Elkargokide bakoitzak egonaldietarako laguntza-eskaera bakarra egin ahalko du.
- Egonaldia amaitu eta 15 egun igaro ondoren, onuradunak lortutako emaitzen azken txostena bidali beharko dio EFEOri.
- Laguntza jasotzeak Elkarberrin argitaratzeko aipamen laburra bidali behar izatea ekar dezake (finantzatutako proiektu, egonaldi edo zientzia-argitalpenari buruz).

Diruz lagun daitezkeen gastuak

- Elkargokideak nazioarteko edo estatuko ikerketa-zentro edo-taldeetan egindako bidaiaren eta/edo egonaldiaren gastuak aurkeztu ahalko dira.
- Finantzatu daitezkeen kostuak 2026ko abenduaren 31 baino lehenago ordainduko dira.

Ebaluazioa

Batzorde Zientifikoak honako atal hauek baloratuko ditu:

- Ikertzailearen CVa.
- Ikerketa-zentro hartzailean garatuko den Ikerketa Planaren metodologiaren kalitatea eta originaltasuna.
- Zentro hartzaileak eginiko onarpen-gutuna.
- INaren eta zentro hartzaileko taldearen esperientzia.
- Egonaldirako aurreikusitako emaitzak.
- Lehenago beka jaso ez izana modu positiboan baloratuko da.



IKERKETARAKO LAGUNTZEN LAU MODALITATEEN OINARRIAK

2025eko deialdia

Eskaera eta dokumentazioa bidaltzea

Eskaerak EFEOren webgunearen bidez bakarrik izapidetuko dira. Webgunean Google Forms inprimakia jarriko da eskuragarri; hortaz, beharrezkoa izango da Gmailera lotutako helbide elektroniko bat erabiltzea. Inprimakiak INaren identifikazio-datuak bilduko ditu, eta honako lau fitxategi hauek eranstea ahalbidetuko du (artxiboak PDF formatuan soilik erantsi ahalko dira, adierazitako formatu-arauak betez, eta ez da txantiloirik emango):

1. Honako atal hauek dituen Ikerketa Plana (gehienez 2 orri):

- Proiektuaren izenburua
- Egonaldia egingo den unea
- Proiektuaren memoria: testuinguruan kokatzea, berritasuna eta garrantzia, helburuak, lan-plana eta egonaldirako aurreikusitako emaitzak.

Formatua: Calibri letra-mota, 11 tamaina, 1,5eko lerroartea.

Egonaldirako laguntzaren PDF fitxategiak honako izen hau izan beharko du:

AYUEST_PLAN_IN-AREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.

(Adibidez, ikertzaile nagusiak Alaitz Ibarluzea Torres badu izena, fitxategiak honako izen hau izango du: **AYUEST_PLAN_AIT_2025**)

2. Zentro hartzaileak eginiko onarpen-gutuna:

PDFaren izena: **AYUEST_CARTA_IN-AREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.**

(Adibidez, ikertzaile nagusiak Alaitz Ibarluzea Torres badu izena, fitxategiak honako izen hau izango du: **AYUEST_CARTA_AIT_2025**)

3. INaren eta zentro hartzailearen esperientzia (gehienez 2 orri):

PDFaren izena: **AYUEST_EXPIP_IN-AREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.**

(Adibidez, ikertzaile nagusiak Alaitz Ibarluzea Torres badu izena, fitxategiak honako izen hau izango du: **AYUEST_EXPIP_AIT_2025**)

4. CVL:

CVaren formatua FECYT-en CV normalizatu laburtua (CVL, gaztelaniaz CVA) izango da.

Fitxategiaren izena: **AYUEST_CVA_IN-AREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.**

(Adibidez, ikertzaile nagusiak Alaitz Ibarluzea Torres badu izena, fitxategiak honako izen hau izango du: **AYUEST_CVA_AIT_2025**)

Epeak, ebazpena eta jakinarazpena

Egonaldietarako Laguntzetarako eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 19an hasiko da, eta 2025eko irailaren 26an amaituko da, 15:00etan (penintsulako ordua).

Emakidaren aldi baterako ebazpena 2025eko urrian argitaratuko da. Erreklamazioak egiteko aldiak 5 egun baliodun iraungo du, aldi baterako ebazpena argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Egonaldietarako Laguntzen esleipena EFEOren 2025eko Urteko Ospakizunean jakinaraziko da, eta saria jaso ahal izateko derrigorrezkoa izango da ekitaldi horretara joatea.



IKERKETARAKO LAGUNTZEN LAU MODALITATEEN OINARRIAK

2025eko deialdia

4. BATZARRETARAKO LAGUNTZAK

Zenbateko ekonomikoa 3.000 eurokoa izango da, jasotako eskaeren ezaugarrien eta kopuruaren arabera banatzeko.

Oinarriak eta eskakizunak

- Dagokion batzarrera bidalitako abstract bakar bateko lehenengo egilea bakarrik finantzatuko da, eta egile horrek batzarrean izena emanda duen egilea izan beharko du.
- Lehenengo egile bakoitzak eskaera bakarra egingo du. Eskaera bakar horretan gehienez lehenengo egileak eginiko hiru abstract aurkeztu ahalko dira.
- Batzarretarako laguntzen eskaera egin aurretik dagokion batzarrera abstracta bidali dela ziurtatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko da derrigorrez. Batzarrean abstracta onartu izana modu positiboan baloratuko da, baina ez da derrigorrezkoa izango eskaera aurkeztu ahal izateko.

Bateraezintasun-araubidea, jarraipena eta justifikazioa

- Elkargokide bakoitzak gehienez Batzarretarako Laguntzetarako eskaera bakarra egin ahalko du, eskaeran bidalietako abstract-kopurua edozein dela ere.
- Izen-ematearen kostuak justifikatu beharko dira ordainagiri edo faktura baten bidez. Izen-ematea dagoeneko ordaindu bada, ordainagaria ere bidaliko da.
- EFEOko Gobernu Batzarreko kideak abstractaren egilekide gisa agertu ahalko dira, baina ezingo dute Batzarretarako Laguntzen onuradun izan.
- Batzarra egin ostean, elkargokideak horretan izandako esperientziaren deskribapena bidali beharko du, Elkarberrin argitara dadin.
- Behin Batzarretarako Laguntza emanda, derrigorrez EFEO aipatu beharko da abstract horren ondorioz egindako jakinarazpen eta zientzia-argitalpen guztietan.

Diruz lagun daitezkeen gastuak

- 2025. urtean dokumentua argitaratzen denetik aurrera eta 2026. urte osoan zehar egineko estatuko eta nazioarteko batzarretara joatearekin (mintzaldia egitea edo posterra aurkeztea) lotutako zientzia-jarduerak finantzatuko dira.
- Jasotako eskaera-kopuruaren arabera, eskatutako zenbatekoa batzarrean izena emateko kostuak eta/edo bidaiari lotutako kostuak (hegazkin-tiketak edo norberaren autoan garraiatzean, kilometro-kopurua) finantzatzeko bakarrik erabili ahalko da. Ez dira ostatatzetik, otorduetatik edo garraiotik (garraio publiko edo pribatua) eratorritako gastuak eta dietak finantzatuko.
- Finantzatu daitezkeen kostuak 2026ko abenduaren 31 baino lehenago ordainduko dira.

Ebaluazioa

Batzorde Zientifikoak honako atal hauek baloratuko ditu:

- Ez da intereseko gairik ezarriko.
- Gobernu Batzarreko kideek Batzarretarako Laguntza egokia den eta esleitu behar den eztabaidatuko



IKERKETARAKO LAGUNTZEN LAU MODALITATEEN OINARRIAK

2025eko deialdia

dute.

- Fisioterapiarekin lotura duten eta zientzia-ibilbide luzea duten nazioarteko batzarretan parte hartzea modu positiboan baloratuko da.
- Modu positiboan baloratuko dira diziplina anitzeko taldeak, baldin eta taldekideen % 70 fisioterapeutak badira.
- Modu positiboan baloratuko da abstracteko egilekide gehienak EFEOko elkargokideak izatea.
- Aintzat hartuko dira genero-ikuspegia eta berdintasuna.
- Laguntzak zientzia-erakundeen artean modu ekitatiboan banatzen direla zainduko da.
- Aurreko deialdietan EFEOren Ikerketarako Laguntzaren bat lortu bada, modu negatiboan baloratuko da.

Eskaera eta dokumentazioa bidaltzea

Eskaerak EFEOren webgunearen bidez bakarrik izapidetuko dira. Webgunean Google Forms inprimakia jarriko da eskuragarri; hortaz, beharrezkoa izango da Gmailera lotutako helbide elektroniko bat erabiltzea. Inprimakiak eskatzailearen identifikazio-datuak bilduko ditu, eta PDF dokumentu bakarra erantsiko da (ez da txantiloirik emango), hiru atalekin:

1. Lehenengo orriak abstracta bidali izanaren egiaztagiria izango du. Eskaerari abstract bat baino gehiago atxikiz gero, ikertzaile bakar batek bidalitako abstract bakoitzeko orri bana gehituko da.
1. Jarraian, Batzarrak abstracta onartu izanaren egiaztagiria jasoko da, halakorik izanez gero.
1. Azkenik, Batzarraren kostua edo ordainagiria, ordainketa dagoeneko egin bada, aurkeztuko da.

Dokumentua PDF formatuan bakar-bakarrik erantsiko da, honako formatu-arau hauek betez:

Fitxategiaren izena: **AYUCON_IN-AREN IZENAREN ETA BI ABIZENEN SIGLAK_URTEA.**

(Adibidez, ikertzaile nagusiak Alaitz Ibarluzea Torres badu izena, fitxategiak honako izen hau izango du: **AYUCON_AIT_2025**)

Epeak, ebazpena eta jakinarazpena

Batzarretarako Laguntzetarako eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 19an hasi da, eta 2025eko irailaren 26an amaituko da, 15:00etan (penintsulako ordua).

Emakidaren aldi baterako ebazpena 2025eko urrian argitaratuko da. Erreklamazioak egiteko aldia 5 egun baliodunekoa izango da, aldi baterako ebazpena argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Behin betiko ebazpena EFEOren 2025eko Urteko Ospakizunean argitaratuko da, eta saria jasotzeko derrigorrezkoa izango da ekitaldira joatea.